
Eilastasuna proiektu proposamena.

Proiektuak aurkezteko galdetegia.



PROIEKTU IZENA. *

Artea sarea-Eskola

HERRIALDEAN PROIEKTUARI BURUZ.

HERRIALDEA. *

Euskal Herria

ELKARTEA. *

Artea sarea

ONURADUNAK. *

Transitoan dauden 2 eta 16 urte arteko haurrak eta bere amak

PROIEKTUAREN LABURPENA. *

Arteako (Bizkaian- Arratian) Bentara dauden errefuxiatuen artean bi motatako haurrak daude. Artean bertan bizitzen geratuko direnak eta epe motz baterako etortzen direnak. Lehenak eskola publikora doaz eta euskara ikasi eta egunerokoan errez sartzen dira. Epe motz baterako daudenak ere eskola publikora joaten dira baina hauen egoera askoz zailagoa da eta askotan eskolarizatu gabe denbora luzez egon dira eta jatorriz oso desberdinak dira.

Horregatik pasa den ikasturtetik eskola alternatibo bat osatu genuen. Aurten eskola amaitu eta eskolaz kanpoko ekintzak burutzen dituzte. Arlo asko ikutzen dituzte baina batez ere, arlo sozio afektiboa.

HELBURUAK. *

Eskolan dituzten zailtasunetan lagundu.

Oso beharrezkoak dituzten bestelako ekintzak burutu.

Bidai luzearen ondorioz dituzten gabezietan lagundu.

Euren amei arnasaldia eman eurak ere gaztelania eta euskara ikas dezaten

GARATUKO DIREN JARDUERAK. *

Mota askotako jarduerak: eskolaz kanpokoak izanik era ludiko eta giro lasaian burutuko dira beti ere: arteterapia, kirola,...

PARTE-HARTZAILEAK. *

Arteako bentan transitoan eta bizi diren haurrak eta Artea bertako umeei ere zabaldu egiten zaie. Honela interakzioak errezago suertatuko dira.

BALIABIDE MATERIALAK. *

Jolasak eta material fungiblea

HEZKUNTZAN DUEN ERAGINA. *

Egun Arteako eskolan suertatzen ari den egoera hobetzeko ezinbestekoa iruditzen zaigu.

KOMUNITATEA ETA ANTOLAKETA KOLEKTIBOAN DUEN ERAGINA. *

Proiektua Arteako eguneroko bizitzan erabat txertatuta dago eta oso garrantzitsua da Arteako jendeak ez ikustea errefuxiatuak zama bat bezala aberastasuna bilakatzeko. Honetarako oso inportantea da honelako esparruak sortzea

GENERO BERDINTASUNEAN DUEN ERAGINA. *

Gehienetan amek hartzen dute kargarik handiena, honela arnasaldia hartu ahal dute eta aldi berean eurek ere zerbait ikasi ahal dute.

KONTAKTURAKO PERTSONA HERRIALDEAN. *

E-POSTA. *

TELEFONO ZENBAKIA.

INFORMAZIO GEHIGARRIA.

EUSKAL HERRIKO IKASTETXEEKIN LOTURA.

IKASTETXEA. *

Arteako eskola publikoa eta Arratiako DBH.

ONURADUNAK. *

Bertako edozein ikasle

HELBURUAK. *

Interakzioak sortzea eta elkarrengandik ikastea.

JARDUERAK. *

eguneroko jardueretan errefuxiatuek eta bertakoek parte hartuko dute. Noizbehinka Bizkaiko beste eskola publiko batzuetatik etorri izan dira proiektua ezagutzera (Arratzuko eskola publikoa,...)

BULTZATZAILEAREN -Eilastasunkidea- KONTAKTURAKO DATUAK. *

E-POSTA. *

TELEFONO ZENBAKIA. *

INFORMAZIO GEHIGARRIA.

Proiektua apur bat desberdina denez zaila egiten da galdetegiari egokitzea

DIRU KONTUAK. PARTE ECONÓMICA.

AURREKONTUAREN ERABILPEN AURREIKUSIA. USO PREVISTO DEL PRESUPUESTO. *

Kontratutako irakaslea ordaintzeko eta material berezia erosteko (Azken hau gehien bat emandako jostailu eta tresnekin egiten da)

2020rako AURREKONTU PROPOSAMENA. PROPUESTA PRESUPUESTO 2020. *

Irakasleari bertako langile guztieei bezala ordaintzen zaio.

INFORMAZIO GEHIGARRIA. INFORMACIÓN ADICIONAL.

Este contenido no ha sido creado ni aprobado por Google.

Google Formularios